

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1185

31/2025 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Asier Rico Miranda jauna Erradiologiako Unitate Zentraleko Koordinatzaile kargutik kentzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuan.

159/2018 Ebazpenaren bidez, Erradiologiako Unitate Zentraleko Koordinatzaile izendatu zen Asier Rico Miranda jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESlan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Asier Rico Miranda jauna Erradiologiako Unitate Zentraleko Koordinatzaile kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESlan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko martxoaren 2ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urduliz, 2025eko otsailaren 25a.

Uribeko ESlko zuzendari-gerentea,
JESUS MANUEL SUAREZ ROMAY.